

# ANTTONI ESKERRAK!

Begoña Lasa

**A**utobusean gindoazela Udaberriko goiz batez aurreko egunetan bezala, egunak argitzeari ekin zion. Astelehena zen eta "musika kultura"tzat izendatzen genuen gaia egokitzen zen. Autobusetik jaitsi bezain laster zineman izaten diren aulkiz hornitutako gelara joan ginen. Ilunpetan zegoen eta aulkiak ohi ez bezala leiho aldera ipinita. "Eser zaitetze" agindu zigun (...) Vivaldiren Lau Urtaoren lehen printzak entzuten genituen bitartean kortinak zabaltzen hasi zen. Denon harridurarako une hartan txere aurrean geneuzkan mendietatik eguzkiaren lehen errainuak agertu ziren eta pixkanaka-pixkanaka eguzkia bere osotasunean".

**N**on irakurri ote dut hori? Pentsa dezake bakarren batek aurreko pasarte ikusita (...) Ezaguna egiten zait. (...) Bai, ikastolara joaten ginen garaikoa da. Anttonekin Musika kultura ematen genuen hartakoa (...) Baina ez al zen osteguna? Eta ez ziren Vivaldiren "Lau urta-roak", ez dakit noren bestelako hura zen". Horixe da gutxienekoa, deskubri dezagun, geure oroimenari astinaldi bat emanez ahapaldiz ahapaldi, nor dugun, nolakoa zen ala den, zer eman zuen honako honetan mintzagai dugun pertsona hark. (Haren izena zein zen jakiteko laguntza, norbait zalantzarik sortuko balitzaio ere, parrafo bakoitzaren haserako letrek emango diote).

**T**alde hartako, Orereta Zikloturismo taldeko partaidea izango ginen txirrindularigai mordoxka abiatu ginen Lezoko Altamirara. Larunbata zen eta lasterketako bizikleta berriak generamatzen aldean, gainean trebatzeko asmoz. Muturreko bat baino gehiago hartu genituen maldan behera gehiegizko abiaduran jaitsi eta besteak beste frenoari eragiten ez genekielako. Lehen hurbilpen hartatik taldea osatu zen eta taldekide izan zirenek makina ibilaldi egin zituzten batera eta bestera Euskal Herriko errepideetan barrena, kirolzaletasuna zuzpertz eta inguruneak eza-gutzeaz gain une libertigarriak pasatzeko beta izanik.

**T**ontorrera iritsi eta beherakoan nekeak jota gentozela (hamabosten bat izango ginen Aiako Harriara, garai hartan "harrietara" esaten genion) joan ginenez berak proposatutako joku libertigarri hari ekin genion "Ea zein heltzen den lehena hanka baten gainean... Orain herriz atzeraka... Orain...". Beste zenbait gurasok ere, beren borondatez eraman izan gintuzten jai egunetan mendira (Ernio, Uzturre, Murumendi eta beste askotara) gudan mendiarekiko grina ernarazteko edo.

**O**edo huts jarriko ote genion geure buruari? Hamar urte inguru izango genituen, mordoxka izaki eta geure ekintzen arduradun izaten irakasteko edo,

grafiko bitxi batzuk asmatu zituen. Grafiko horietan denon izenak agertzen ziren batetik, eta bestetik hilabeteko egunak. Egunez egun geure jokabidearen araberrako nota jarri behar izaten genuen. Hilabetearen bukaeran norberak batabestekoa ipiniko genuelakoan nago.

**N**ola den elurra hola txuria, dio "Pintto txakurra" abestia baino askoz ere lehenagotik ikasi genuen Estitxu abeslari gogoangarriaren "Goizetan pozik goaz ikastolara" doinuaren pasarte batek. "Diska saiaketa" deitzen genuen saioan, behin eta herriz agertu baitzen lehendabizikoa zerrendetan. Etxetik eraman ohi genituen diskak (orduan diskagailua zeukanak noski) eta entzun



Antton Mendizabal, Amaia Etxeburua, Begoña Lasa eta Jokin Mltxelena ikasleekin, Toledoko katedralearen ate aurrean, 1979-80 ikastaroan egindako bisitaldian.

ondotik puntuak eman. Punturik gehien zeukana izan ohi zen entzuten genuena.

**M**uralak nahikoa lan eman zigun! Egund hartan gaiaren aurkezpena egokitzen zitzaigun, eta urduri geunden. Bi aste eman genituen animalia basatiei buruzko lana burutzen: Entzilopediak kontsultatu, gaia garatu, aldizkaria prestatu. A zer nolako lana azalarekin! Gainera azalpenaren ostean puntuaketa helduko zen, hura lana! Taldeka egin behar izaten genuen. Talde bakoitzak jorratuko zuen gaia pentsatu behar izaten zuen eta aurrez

ipinitako egunean aurkezpena burutu. Etxez etxe ibili ohi ginen lana borobilduko bagenuen!

**E**rreportari lanetan ikusi genuen geure burua nahiz eta hamar urteko ume mukizuak izan. Guatemalako gerratea gertatu berria zen eta grafikoki azaldu behar izan genuen: Gertakariaren pasadizo nagusienak folioetan irudiztatu genituen. Ondoren, bata besteari itsatsita kartoi-ekin kaxa batetik barrena pasa genituen zinemako sketxak bailiran. Hura txalo zaparrada erakusketaren ondotik! (erraz! gure artean gelan hobekien margotzen zuena zegoen eta!).

**N**ork pentsatuko zuen bururik ez duen irudi bat ederra irudituko zitzaidala? Halabaina, berarekin izaten genituen Arteko eskolatan Samotraciako Garaipenaren soinekoaren zimurduren perfekzioaz, Impresionisten koloreaz eta hainbat eta hainbat gauzaz jabetzeko aukera izan nuen.

**D**irua atera behar ikasketa bidaia egin ahal izateko. "Zergatik ez dituzue taldetxoak egiten eta zuen artean ekintza desberdinak burutzen?" proposatu zigun. Halaxe egin genuen. Nik gogoan ditudanak "Propaganda" eta "Salerosketa" taldeak dira. Salerosketa gimnasioaren ondoan zegoen gelatxo hartan ipini genuen eta txandaka jolasgaraietan bokatak eta bestelakoak saldu- ta egiten genuen. Esneko boiloak ahaztu gabe!-

**I**noiz, ia inoiz ez naiz joaten gaur egun footing egitera; joan izan naizenetan batek baino gehiagok egin izan du irri nire arnasa hartzeko eraz: "Bitan hartu arnasa sudur- rarekin eta beste bitan bota" (Horrelako zerbait izango litzakete: Uf, uf/Fu, fu) esan zenigun kiroletako klase batean geundela, eta harrezkero neuk horrela egin. Añabitarten geundela ikasturteren batean edo bestean kiroletako irakasle izan zintugun ezta!

**Z**er nolako tripakada, denetik jan nahi eta ezin!. Ikasturtearen bukaera heltzeaz zegoela bazkari kolektibo bat egiteko proposamena luzatu zenigun. Baldintza nagusia platera norberak prestatu behar izatea zen (Neuk onartu beharra daukat amak prestatutako "esne frijitua" eraman nuela). Nork zer eramango erabaki genuen; ez ordea zenbat eraman behar ote zen. Honela bada, eguna iritsita, 45 plater inguru agertu ziren: horietatik 15 lehen plater, beste 15 bigarren eta beste 15 postrerako. A zer nolako tripakada denetik jan nahi eta ezin!

**A**ntzokira, Victoria Eugenia Antzokira berandu iritsi ginen. Orkestrak lehen pieza bukatu artean egon behar izan genuen zain. Zaindariaren aginduz sartu ginen, aulkiek egiten zuten zaratek lotsarazten gintuztela. Pianoak bakar- kaka emanaldiari ekin zion. Gutariko bat sabeleko orruen deiar erantzenez ogitartekoari papera kentzen hasi zen, "Krus,krus...". Eta ingurukoak "Shuuu...". Hura lotsa! Donostiako Musikarien Elkarte delakoaren kide zinen nonbait eta noizbehinka eskuratzen zenituen gonbidapen-txartelei esker aukera izan genuen kontzerturen bat edo bestelako emanaldiren bat entzuteko.

**B**izitako pasadizoak, zurekin bizitako pasadizo- ak kontatzen jarrai nezakeen zurekin, Antton- ekin; bizitako pasadizoak kontatzen, ikaskide

izan nituen eta zure ikasle izan ziren beste askok makina bat izango litzakete, baina ez da hori nire asmoa. Honako honekin omenaldi xume bat egin nahi nizuke, normalki honelakoak inoren faltan egin ohi diren arren. Gaur egun irakaskuntzaren mundua utzi baduzu ere, zure ikasle izan direnen oroimenean zaudela gogorarazi nahi nizuke. Nik neuk beste askok bezalaxe horretan dihardut, eta aritze horretan behin baino gehiagotan etorri zaizkit gogora zeure irakaspenak. Egungo irakaskuntzan aurrerapauso handiak eman direlakoan daude: Ditxosozko kurrikuloa dela, ikasleen irakaskuntza pertsonalizatua, taldekako lanak (besteak beste ikasleen autonomiari edo dena dela- koari lotuta), ekintza osagarriak eta bestelakoak. Horiek guztiak, beste izenez agian zeure baitan zeuden eta goian aipatutako pasadizoez adierazten dutenez gauzatu zenituen edo eta ahalegindu zinen behintzat.

**A**zkenerako lerro hauek irakurrita irakasleren bat edo beste mindua senti daiteke, eta berak egindako ahalegina ez dudala aintzakotzat hartu pentsatu. Jakin badakit ere zenbait ekintzaren eragile bakarra ez zela Antton izan, beraz gain bazirela lan eskergaitza egin zuten irakasleak, zalantzarik ez! Honako honekin, irakas- kuntzari hainbeste eman zion hari eskerrak eman nahiko nizkioke; irakaskuntza, eskolak emate hutsa baino areago hartzen zuen hari, besterik ez.

**L**andu zenuen arbolak, zure mendiaren zabaltasunean izango al zuen fruiturik!

